

Hitzaurrea

Udako Euskal Unibertsitateak 50 urte bete ditu. Udako Ikastaroen 50. ekitaldia antolatu dugunez, urte berezi-berezia izan da 2022koa. Urtea hasi baino lehen UEUko Talde Eragilean arduradun bat izendatu genuen urteurrenaren ospakizuna merezi bezala antolatu ahal izateko: Koldo Garcia. Eta 50. urteurreneko batzordea ere eratu genuen hasieran. Lantaldeko Idoia Torregarai komunikazio-arduraduna eta Koldo izan dira batzordearen dinamizatzaile nagusiak. Urte osoan zehar lan ikaragarria egin dutenez, emaitza oparoa izan denez, egindako ekarpenak ahaztu baino lehen ondo bildu behar genituela erabaki genuen. Dena liburu batean jaso nahi genuen, eta horixe da eskuan duzun liburu hau.

Geure buruari jarri genion helburuetako bat 2022an zehar UEUren erreferentzialtasuna areagotzea izan zen. Gure lana zein den zabaldu gizartean, kide berriak erakarri eta erakundeen babesa jasotzea. Helburu horri begira, urte honetan barne-postan eta medioetan etengabe agertu gara, elkarlan asko bideratu ditugu unibertsitate, elkarte eta erakundeekin, eta mimatu ditugu kanpo-harreman instituzionalak.

Hedabideetako titularrek ezin hobeto islatu dute UEUK euskal unibertsitatea eraikitzeke beremuinean daraman espiritu aldarrikatzaile eta, aldi berean, eraikitzailea: «Mende erdia utopiaren xerka» (G. Hermosilla, *Berria*), «Aurrera begira ospatuko ditu 50 urteak Udako Euskal Unibertsitateak» (*Diario Vasco*), «Euskal unibertsitatea obretan, baina irekia» (E. Erremundegi, *Berria*), «Duela 50 urte ezinezkotzat jotzen zena lortu dugu» (Hamaika), «Inoiz iritsiko da euskal unibertsitate fisikoa, ziur» (U. Rey Gorraiz, *Nafarroako Hitza*), «Euskal Unibertsitatearen katedrala eskaileraz eskailera eraikitzen» (M. Iantzi, *Gaur*8), «Euskarazko unibertsitatearen ezina, ekinez egina» (K. Sainz de Bikuña, *Enpresabidea*) eta «UEU: 50 urte. Karlos Santamariaren euskal unibertsitatearen bidean» (M. Elustondo, *Argia*).

Elkarlana eta harremana hainbat erakunderekin landu dugu. Oso atsegina izan da aurren UEUK Elkar saria jaso izana, norekin eta Elhuyarrekin batera. Elkar, Elhuyar eta UEU... hirurok batera, hirurok 50 urte bete ditugunean. Bestalde, berriki Jose Ramon Etxebarriak eta Xabier Amurizak, UEUren proiektuaren ikurra izan daitezkeenek, Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jaso dute. Eta Eusko Ikaskuntzarekin antolatutako Tartarika hitzaldiak erreferentziazko bilgune ezagunak bihurtu zaizkigu. Gainera, Biarritzeko Mediatekan maiatzeko ekitaldian, eta Bilboko

Kafe Antzokian iraillekoan, UEUK aitorpen eta konplizitate zabala jaso du kultura, akademia eta instituzioetako agenteen aldetik.

Eta harreman-lan horrek guztiak fruituak eman ditu. Fruitu horietako bat izan da Euskal Ikerketa Sareko kide gisa onartua izatea UEU. Eta noski, beste fruitu bat da, argi dago, GOI ikastetxeak bere eskaintza sendotzen jarraitzen duela ikustea; UPV/EHUrekin lankidetzan online erako Irakaskuntza Masterra sendotuz doa ikasturtez ikasturte, eta gainera Humanitate Digitalen lerroan ere hainbat ekimen interesgarri burutu ditugu: ikasleek egindako lanen aurkezpena apirilean, azaroan BadalaB-ekin batera egindako jardunaldia edota Erreneriako Torrekua HD gunea.

Bizialdi osoko online formakuntzaren arloan erreferentzia eta motor eragile bihurtu nahi dugu UEU Euskal Herrian. Euskal gizartearentzat arlo estrategikoa dela uste dugu, eta erronka da guretzat azpiegitura zabal bat euskaratik eraikitzea. Aurten plazaratu dugun IkastarONline ibilbidea horren adibide garbia da; UEUK urteetan online ikastaroak diseinatzeko esperientzia ziklo-formatuan eskaintzen hasi gara, erreferentzialtasunean urratsak eginez.

50. Udako Ikastaroak bereziak izan dira. «Ikastaro ikastaro» ez dira izan aurtengoak, 2022koetan denak izan dira jardunaldi edo topaketa, guztira 22. Jardunaldiak UEUKo sailkideekin alorka antolatuta: Hizkuntzalari Euskaldunen VI. Topaketa, matematikariena, informatikariena, historialariena, dokumentalistena... Eta jardunaldiak hainbat eragilerekin elkarlanean antolatuta: Elhuyar, Elkar, Jakin... eta, noski, hasierako jardunaldi berezia «50 urte UEUgintzan» gai berezia aztertzeko. Hausnarketarako eta elkarlanerako topagune izan dira inoiz baino gehiago eta benetan emankorra izan da bertatik jaso dugun uzta.



Urtean zehar ondo pasatzeko eta lagunak egiteko tartea ere izan dugu. Zelan ez! Ez da laburra izan, gero, ospakizun ludikoen zerrenda. Ikusi ikusi: UEUtopa (hasierakoa eta bukaerakoa), sei UEU festa hiriburuetan, Korrika-barredromoa, Korrikaren 2.566. kilometro nazionala, *Bekaduna* websaila... Zer esan? Ondo pasatu dugula. Eta batzorde antolatzaileak ondo bildu dituela saio «serioak» eta saio «jolasgureak». Honela bakarrik azaldu daiteke bazkietza-kanpainari esker 1.400 bazkide izatera heltzear gaudela orain. Eta honela bakarrik batu dezakegu indar nahikoa webgunea berritzeko prozesuari ekiteko; bai, urteurrena dela aprobetxatuta, ueu.eus webguneari astindu ederra eman diogu, ematen ari gara, dena itxura apur bat freskoagoan azaldu dadin.

Azkenik, ezin ditugu ahaztu urteurrenari bukaera emateko sortu ditugun hiru liburuak. Festak antolatu bakarrik ez, unibertsitate-giroko «intelektualok» liburuak sortzen ditugu ideiak finkatzeko eta ideia horiek gero hobeto garatzeko. Ez bat eta ez bi... hiru liburu plazaratu ditugu urteari bukaera emateko.

Eskuan duzun liburu hau da ospakizunetako azken-azken fruitua, urteurrenean jaso diren hausnarketa guztiak biltzen dituen liburua da. Baina lehenago iazko azaroan beste bi liburu atera genituen, Durangoko Azokan egon ziren liburu biak.

Urratuen arrastoan. UEUk begirada literarioa hauspotu zueneko liburuan hamazortzi «UEUnibertso literario» batu zituen Iratxe Retolazak, UEUz gogoeta egiteko hamazortzi testu literario. Iratxek idatzi duen sarreran primeran jaso du Literatura Sailaren historia:

UEUren unibertsoa, beste edozein erakunderen zein mugimenduren ibilbidea bezalatsu, afektu-sarez josita dago, eta harreman emankorrez zein harreman korapilatsuz urratu zaigu azala, ekiteak beti dakarrelako urrakadaren bat, baita elkarrekin ekiteak ere. Hortaz, bildumako testuetan zehar giza sareek sorturiko itxaropenen, pozen, kontraesanen zein zaurien arrastoak topatuko dituzu. Izan dadila bilduma hauspo, etorkizunean ere etorkizunean ere UEU fikzioa sortzeko gune urragarri izateko.



Euskal Unibertsitateari *Jakin* aldizkariak eskainitako ale monografikoak hamar analisi/proposamen bildu ditu. Zelan egin nahi dugu Euskal Unibertsitatea? Zelan egin ahal dugu Euskal Unibertsitatea? *Jakin* aldizkarian «Euskal Unibertsitatea» hirutan izan da gai monografikoa (1977ko 1. zenbakian, 1997ko 100. zenbakian eta 2002ko 130. zenbakian). Iazko azaroan UEUrentzat estrategikoa den gaia berriro ekarri dugu lehen lerrora. Irakurri dituzu artikuluetako analisi eta proposamenak? Zer egingo dugu? Komentatu duzu lagunekin?

- Euskaraz eta online... zer gradu eta master ofizial lirateke bideragarrienak hasieran?
- Nola uztartu proiektu hori mundu globaleko beste «metabertsitate digitalekin»? Ezinezkoa da?
- Posiblea al da Euskal Unibertsitate publiko birtuala artikulatzea? Hasieran master ofizialetan batez ere? Zelan enfokatu feminismitik?
- Zelan piztu oraindik erabili gabe dauden EAEko Unibertsitate Legearen aukerak?
- Behe-lainotan ari gara... indartzeko zutabe posibleak: kultura eta soziolinguistika, herriaren eta hizkuntzaren arteko loturak, historia-eredu hegemonikotik kanpo: «Herri-kohesiogintza» lurralde-antolaketa, XXI. mendeko errealitate-krisiei aurre egiteko euskaldunon aterpea, interes sozialekin bat etortzea (ekitatea, kohesio soziala, bizitza duina, iraunkortasuna...), tokiko ingurune sozialarekin harremanak estutzea.
- Enpresekin lankidetzatza (MBA euskaraz eta online?).
- Lankidetzatza antzeko arazoak dituzten unibertsitateekin.
- EHko unibertsitateen artean euskarazko ikasgaien katalogo bat konpartitzea eta elkarri homologatzea? EHko unibertsitateen arteko metabertsitatea?



Beraz, liburuekin bukatzeko, urteurrena dela-eta azken hiru liburu berri horiek (eta *Bekaduna* websaila ere bai ;-)) gehitu ditugu Euskal Unibertsitateaz gogoeta egiten duten liburuen zerrenda honetan:

- «Euskal Unibertsitatea», *Jakin* aldizkariko 252. zenbakia, 2022.
- *Euskara unibertsitatera bidean: eragileak eta proiektuak (1939-1990)*. Karmele Artetxe, Udako Euskal Unibertsitatea, 2011.
- *Udako Euskal Unibertsitatea euskal kulturgintzan: Hasierako urteak 1973-1984*. Mikel Aizpuru, UEU, 2003.
- «Euskal Unibertsitatea eginkizun. Aldarrikapen baten bilakaera historikoa», *Jakin* aldizkariko 130/131. zenbakia, 2002.
- «Euskal Unibertsitatea eginkizun», *Jakin* aldizkariko 100. zenbakia, 1997.
- «UEUren 25. urteurrenean», Pedro Miguel Etxenike Alfontso Mujika, *Elhuyar* aldizkaria, 1997.
- «Euskal Unibertsitatea», *Jakin* aldizkariko 1. zenbakia, 1977.

(Ohartxo: aurtengo jardunaldietatik beste bi liburu atera dira)

2022. urtean egindakoa nolabait laburtu beharko banu, honela esango nuke: batzordeak eta UEUKideek lan fina egin dute, egindakoaz harro gaude, eta gainera konforme.

Badugu zer egin 2023tik aurrera. UEU unibertsitatea da. Agian ez da unibertsitate formala; ez du azterketarik egiten eta titulu ofizialik barra-barra banatzen, baina gizarte-eragilea izan nahi du, euskal komunitate zientifiko-intelektuala bilduz gizartearen arazoei aurre egiteko erantzunak bilatzen ditu jakintzaren ikuspuntutik. Horretan bete-betean gara unibertsitate.

Aurrera!

Kepa Sarasola. UEUko zuzendaria #50UEUrtan